



> 2024ko Jardueren Memoria

GAUTENA
Gipuzkoako Autismo Elkartea





AURKIBIDEA

2024



1. AURKEZPENA	4
2. GURE ERAKUNDEA	6
3. PROGRAMEN ETA ZERBITZUEN ZORROAREN ANTOLAKETA	7
3.1. HAUR ETA GAZTEEN ARLOA	8
3.1.1. DIAGNOSTIKOA ETA ESKUHARTZEA	8
3.1.2. HEZKUNTZA	12
3.1.3. GIZARTEAN PROGRAMA	15
3.2. HELDUAROAREN ARLOA	16
3.2.1. EGUNEKO ARRETA	16
3.2.2. AZPEITIKO BALIABIDEA	19
3.2.3. ETXEBIZITZA	22
3.2.4. DIAGNOSTIKOA ETA ESKUHARTZEA	25
3.3. FAMILIEN ETA GIZARTEAREN ARLOA	26
3.3.1. FAMILIENTZAKO LAGUNTZA ETA ELKARTE EKINTZA	26
4. 2024KO EKINTZAK	30
4.1. EKINTZA SOLIDARIOAK	36
5. URTEKO KONTUAK	38
5.1. EMAITZEN KONTUA	38
5.2. EGOERAREN BALANTZEA	39
6. FINANTZATZAILEAK	40



AURKEZPENA

Lagun estimatuak:

Esku artean duzuen memorian azaldu ditugu 2024. urteko jarduera eta mugarri nagusiak. Urte honetan ere, azkenaldian bezala, autismoaren espektroko nahasmenduren bat duten pertsonen eta beren familien bizi kalitatean inpaktu potentzial handia duten proiektu itxaropentsuekin batera, gaur egun ezagutzen dugun elkarte ereduaren iraunkortasuna eta balioa ziurtatzeko gero eta erronka handiagoak gainditu behar izan ditugu.

Horrela, bereziki azpimarratu nahi dugu Autismoaren Euskal Plan bat garatu eta abian jartzeko erakundean egin dugun lan gogorra. Lan horren goreneko puntua 2024an iritsi zen, Autismoaren Euskal Plana jardunaldiaren antolaketarekin. UIK udako ikastaroen (UPV/EHU) esparruan egindako jardunaldian, Eusko Jaurlaritzak plana datorren urtetik aurrera abiarazteko konpromisoa hartu zuen.

Autismoaren Euskal Planari esker, sistema arruntek autismoa duten pertsonentzat dituzten sarbide oztopo nagusiak identifikatu ahalko ditugu, eta egin beharreko ekintzak lehenetsiko ditugu. Ondorioz, irismen handiko proiektua da, eta ilusio handiarekin espero dugu erakundean.

Autismoaren Euskal Planari esker, sistema arruntek autismoa duten pertsonentzat dituzten sarbide oztopo nagusiak identifikatu ahalko ditugu, eta egin beharreko ekintzak lehenetsiko ditugu.

Halaber, proiektu horren ildotik, 2024an Eusko Legebiltzarrean onartu den Lehentasunezko Osasun Txartela ezartzeko alderdi anitzeko akordioa goraipatu behar dugu, osasun sistemaren irisgarritasuna hobetuko baitu. Aldarrikapen historikoa izan da hori gure sektorean, gure bizi kalitatean izango duen inpaktu handiagatik.

Erronkei dagokienez, finantzaketa publikoa indartzeko lanean jarraitu dugu sutsuki, alde batetik, gure zerbitzuen kudeaketa ziurtatzeko, eta, bestetik, gure familia bateratuen elkarte proiektuaren iraunkortasuna bera bermatzeko, betiere bizi kalitatea hobetzeko xede erkidearekin eta elkarte kohesioa, sentsibilizazio soziala, eragin politikoa eta ikerketa bultzatzeko konpromiso irmoarekin.

Illo horretan, eta galera nabarmenak izan dituzten hiru urteren ondotik, 2024ko ekitaldiak zifra positiboak azaleratu ditu. Hori posible izan da alderdi guztiek (administrazioa, familiak, profesionalak) proiektuarekiko eta proiektuaren jasangarritasunarekiko agertutako konpromisoari esker. Hurrengo ekitaldietan, administrazioarekin buruz buru lanean jarraitu beharko dugu, egungo araudi esparruetan txertatzen diren oinarri sendoak finkatu ahal izateko.

Gure programak mantentzeko finantzaketa publikoa indartzen saiatzeko lanean jarraitu dugu.

Ilusio eta erronka handien testuinguru horretan, erakundeak bere lan ardatz nagusiak mantendu egin ditu. Horrela, emandako laguntzaren eremuan, gure zerbitzuak zabaltzen jarraitu dugu, bai laguntza goiztiarrekoak, bai hezkuntzakoak eta bai eguneko zentroetakoak ere, egungo eskariari erantzun ahal izateko. Gizartean lantegiak dinamismo bikainarekin garatzen ari dira, 12 urtetik aurrerako gazteen trebetasun sozialak lantzeko, eta elkarriketarako eta lankidetzarako illoak mantendu ditugu kide

garen federazio hauekiko, elkar ezagutza zein sareko lana hobetuz: FEVAS-Plena Inclusión Euskadi, Autismo España eta Autismo Europa.

Aurkezpen hau amaitzeko, aurten ere Kontxa Pasealekua urdinez margotu duen URDINDUZ ekimenaren edizio berria eta Kursaleko Konferentzia Zikloa aipatu behar ditugu. Azken horretan, 300 parte hartzaile izan genituen, inoiz baino gehiago; askotariko gaiak jorratu zituzten Donostian, hala nola osasun sistemarako sarbidea, kode zibilaren erreforma eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera arduratsua.

Laburbilduz, 2024an, autismoaren espektroko nahasmenduren bat duten pertsonen eta beren familien bizi kalitatea hobetzeko erreferentea den proiektuarekin aurrera jarraitu dugu. Ia mende erdi igaro ondoren, ilusio handia sortzen duen proiektua da oraindik ere, baina, aldi berean, familien, profesionalen eta administrazio publikoen konpromisoa beharko du aurrerantzean ere.


Mila esker guztioi,

Zuzendaritza-batzordea



GURE ERAKUNDEA

Datu orokorrak



Datu ekonomikoak

Guztizko diru-sarrera	Ekitaldiaren emaitza
16.106.055€	+105.572€

Zuzendaritza-batzordea

Presidentea

Patxi Agirre Arrizabalaga

Presidente ordea

Blanca Aranguren Achótegui

Idazkaria

Francisco Javier García Pérez

Diruzaina

Marcos Pablo Curto

Batzordekideak

Juan Carlos Etxepeteleku Mindegia

Gema Aramburu Lasquibar

Karmele Sarasola Aguirregomezcorta

José Arrizabalaga Lasa

M. José Istúriz Aguinaga

Susana López Arzac

José Conejo Alonso

Alberto Sáenz de Buruaga Yurramendi

Julia de Pablo Troitiño

Beatriz Alesanco Osés

Programen eta zerbitzuen zorroaren antolaketa

Gautena elkarrearen zerbitzuak eta programak hiru arlo handitan biltzen dira, elkarren artean lotuta daudenak. Aipatu arloek AEN dituzten pertsonak eta haien familiek beren bizi-zikloko etapetan behar dituzten laguntzei erantzuten diete.

HAUR ETA GAZTEEN ARLOA

Adingabeen diagnostikoa egiten dugu, ondoren esku-hartze psikopedagogikoa eskaintzeko, diziiplina anitzeko lanketarekin. Hezkuntzaren eremuan, gela egonkorrak kudeatzen ditugu. Eredu sozialean, gazteentzako trebetasun sozialen programak ditugu martxan Gipuzkoako zenbait tokitan.



775

Diagnostikoa eta esku-hartzea



136

Arreta Goiztiarra



104

Hezkuntza



62

Gizartean programa

HELDUARORI ESKAINITAKO ARLOA

Etxebizitza-zerbitzuak eta eguneko zentroak kudeatzen ditugu behar handiagoak dituzten pertsonentzat. Halaber, orientazioa eskaintzen dugu hezkuntzaren edo lanaren eremuan. Azkenik, diagnostiko eta esku-hartze klinikoko zerbitzu bat dugu helduentzat.



151

Diagnostikoa eta esku-hartzea



21

Azpeitiko baliabidea



151

Eguneko arreta



92

Etxebizitza

FAMILIEN ETA KOMUNITATEAREN ARLOA

Familiei laguntzeko, elkarrekin dinamizatzeko, adingabeen eta helduen aisialdiko, eta ingurunean sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzen bidez eragina izateko programa eta jardura guztiak biltzen ditu.



264

Aisialdia eta Denbora Librea



59

Atsedeen programa



HAUR ETA GAZTEEN ARLOA




Diagnostikoa eta esku-hartzea

Kasu berri ugari iristen ari dira oraindik, eta horrek nahi baino itxaronaldi handiagoak sortzen ditu prozesua hasten ari diren familientzat. Egoera horretan, talde klinikoak oraindik ahalegin handia egin behar du gaur egungo beharrei behar bezala erantzuteko.


Ematen dugun erantzuna ahalik eta hoberena izan dadin, diagnostikorako bide paralelo bat jarri dugu martxan arreta goiztiarreko hautagai izan daitezkeen haur txikienei zuzenduta.

775 artatutako pertsona




• **Urte honetan zehar, 196 adingabe berri hartu ditugu; Osasun Zerbitzuak bideratu ostean izan dute Gautenarekin lehen harremana.**

Adingabeen adinaren arabera banaketa



Adingabeen eskualdeen arabera banaketa



Jardunbide egokien partekatzea

Zerbitzuko profesionalek Autismo España Konfederazioak antolatutako bi online jardunalditan parte hartu dute, eta bi jardunbide egoki partekatu dituzte han:



Adingabeen diagnostiko-prozesua

Irma Isasak, erakundeko talde klinikoaren arduradunak, Gautenara iristen diren adingabeen diagnostiko-prozesuaren antolakuntza partekatzen du. Hari esker, urtean ia 200 pertsonari egin diezaiokegu diagnostiko-prozesua eta, prozesuaren iraupena gutxitzeaz gain, diagnostikoaren fidagarritasuna indar dezakegu.



AEN duten adingabeen arreta pediatrikoa

Ana Osa eta Maider Iparragirre psikologoek aurkeztu zuten jardunbide egoki hori. Bidasoko Eskualdeko Ospitaleko Pediatria Unitatearekin batera garatua, haren helburua da autismoaren espektroko nahasmendua duten 0-6 adin-tarteko umeek irispide errazagoa izatea pediatriako baliabideetara. Asistentzia egokitzeke ekintza espezifikoak egin dira osasun-langile guztiekin, eta osasun-arloan jarduteko modu egokiei buruzko protokolo bat ezarri nahi da.

Azkenik, esku-hartze programa bat landuko da, adingabeak beren adin-tartean ohikoenak diren jardunbideetara eta probetara ohitzen joateko.



HAUR ETA GAZTEEN ARLOA



Diagnostikoa eta esku-hartzea

Prestakuntza

Jasotako prestakuntzak	Irakaslea
Komunikazio-sistema alternatiboak eta handigarriak (KSAH)	Marc Coronas (komunikazio handigarrian espezializatutako psikologoa)
Autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonen osasun mentala	Irene López (arlo klinikoan eta hezkuntzan autismoan espezializatutako psikologoa)
Teknologiak autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsoneri laguntzeko	Lupe Montero (autismoaren espektroko nahasmenduko esku-hartzeen arloko unibertsitate-aditua)
ImPACT ikastaro aurreratua (autismoaren espektroko nahasmendua duten 6 urte arteko adingabeen gurasoei laguntzeko programa)	Gaztela eta Leongo Autismo Federazioa
DABS. Egokitzapenezko jokabidearen proba diagnostikoa	FEVAS - Plena Inclusión Euskadi
Emandako prestakuntzak	Lekua/zentroa
AEN duten ikasleentzako arreta ingurune inklusiboan	Talaia Hondarribiko Eskola, Kristau Eskola, EHU/UPV
Autismoari buruzko modulua (8 ordu)	Mondragon Unibertsitateko Entzumen eta Mintzaira Masterra
Interakzio sozialaren eta jokabidearen zailtasunetan eta nahasmenduetan esku hartzea: kasu-azterketa (8 ordu)	EHUren Arreta Goiztiarreko Berezko Masterra
AENari buruzko ikastaroa (4 ordu)	Mondragon Unibertsitateko Irakasle Gradua

Esku-hartzeko modalitateak

Familian zentratutako eskuhartzea oinarri duen lan-ildoari eusten zaio, non profesionalak lan-helburu batzuk ezartzen dituen eta familiak lan hori egiten duen. Familia-ingurunea prozesu terapeutikoaren parte aktibo eta beharrezkoa dira.

Pertsonaren adinaren, udalerraren eta une horretan dituen laguntza-premien arabera, esku-hartze mota desberdinak baloratzen dira: Arreta Goiztiarreko zerbitzua, bakarkako psikoterapia-saioak, taldeko terapiak edota gizarte trebetasunen tailerrak (GIZARTEAN).

- 6 urtetik beherakoei zuzendutako esku-hartzea

Donostialdean, 6 urtetik beherakoekin egiten den esku-hartzea adingabearen eta haren familiaren garapenera egokitzen da, eta esku-hartze intentsiboa eskaintzen da. Gainera, 2024an, talde-saioak sartu dira 6 urtetik gorakoentzako zerbitzura trantsizioa egingo duten familientzat, esku-hartzearen ikuspegi berria azaldu eta aldaketa errazteko.

- 6 urtetik gorakoei zuzendutako esku-hartzea

6 urtetik gora, modu kolektiboan lan egiten hasten gara, haurren estrategia sozialak eta autonomia garatzea sustatzeko. Garai honetan, ikastetxeekin dugun koordinazioak berebiziko garrantzia hartzen du, betiere familiek hala eskatzen badute. Aldi berean, familien taldeak sustatzen dira esperientziak eta ikasitakoak partekatzeko.

Arreta Goiztiarreko programa

2024an, Programa honen lehenengo urteurrena ospatu dugu. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuaren finantzazioari esker, Donostialdeko 100 haur baino gehiagori zerbitzua ematen jarraitzen du.

Donostialdeko 136 haurrei ematen diegu zerbitzua.



Urte honetan, nabarmen hobetu dugu haurrek, 6 urte betetzean, egin behar duten trantsizio prozesua; izan ere, momentu horretan amaitzen da laguntza goiztiarraren etapa, eta talde klinikoaren ardurapera igarotzen dira adingabeak.



HAUR ETA GAZTEEN ARLOA



Hezkuntza

Gela berria Irunen

Aurten, 22. gela ireki dugu Irungo La Salle ikastetxean. Lehen hezkuntzako gela bat da eta lau ikasle ditu. Horrela, bi gela izango ditugu aurrerantzean ikastetxe horretan, lehen hezkuntzako bat eta bigarren hezkuntzako beste bat, koordinazioa eta elkarlana errazteko.

Gela berri horrekin ingurune egokituago, funtzionalago eta hurbilagoa eskaini ahalko diegu ikasleei, beren ezaugarri eta beharrak kontuan hartuta, kalitate handiagoko arreta pertsonalizatua eman ahal izateko.



Irungo La Salle ikastetxeko lehen hezkuntzako gela berria.

22 gela egonkor



Kokaleku berriak zenbait gelarentzat

- **Intxaurrondo Ikastola (LHI):** kokaleku berria ikastetxean bertan.
- **La Salle Beasain:** kokaleku berria ikastetxean bertan.
- **Scientia Karmelo Ikastetxea:** 30 urtez gure geletako bat izan duen Donostiako ikastetxe hau itxi egin da. Profesionalak eta ikasleak Sagrado Corazón Mundaiz Ikastetxera lekualdatu dira, eta ilusioz beterik eta elkarrekin lan egiteko gogotsu hartu dituzte bertan.

Praktikaldiko ikasleak

Ikastetxeetara joaten diren praktikaldiko ikasleak balio erantsia dira bai irakasle taldearentzat bai ikasleentzat. Prestatzen ari diren profesional desberdinek begirada freskoa, motibazioa eta ideia berriak ekartzen dituzte lantaldeetara, hartara gelako dinamika aberastu eta ikaskuntza giro anitzagoa ahalbidetuz.

- *Ikasturte honetan, Gautenaren geletan praktikak egiteko eskaria nabarmen handiagoa izan da. 22 geletako 14tan, praktikaldiko 25 ikasle hartu dituzte.*

Prestakuntza



Jasotako prestakuntzak	Irakaslea
Komunikazio-sistema alternatiboak eta handigarriak (KSAH)	Marc Coronas (komunikazio handigarrian espezializatutako psikologoa)
Teknologiak autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonen laguntzeko	Lupe Montero (autismoaren espektroko nahasmenduko esku-hartzeen arloko unibertsitate-aditua)
Gautenaren zerbitzu sarea eta marko etikoaren garrantzia (profesional berriak)	Irma Isasa (psikiatra), Begoña Martin (delegatua) eta Ane Bermejo (hezkuntza zerbitzuko arduraduna)
Hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboari buruzko oinarritzko ezagutzak	Idoia Lekue (Genero-gaietan espezializatutako prestatzailea)
Emandako prestakuntzak	Lekua/zentroa
AEN duten ikasleentzako arreta ingurune inklusibo batean	Talaia Hondarribiko Eskola, Kristau Eskola, EHU/UPV
Jarraibideak eta estrategiak eskola-garraioan	Garraioko profesionalei zuzenduta (telematikoa)



HAUR ETA GAZTEEN ARLOA



Hezkuntza

Txango eta jarduera esanguratsuak

Ikastetxeetan antolatu diren hainbat jardueratan parte hartu dugu, esaterako, jaialdietan, txangoetan, Autismoaren Kontzientziazioaren Munduko Egunean eta eskola ingurunetik kanpoko ekintzetan ere.

Horrela, errespetua, enpatia eta lankidetzaz sustatzen dituen hezkuntza ingurune inklusibo bat eraikitzen laguntzen dugu, banakoen ezaugarrietara egokitzen dena, guztiontzako hezkuntza ekitatibo eta kalitate handikoa ziurtatuz.

Lan batzordeak

2023-2024 ikasturtean lan batzordeak sortu dira, hezkuntza komunitateko kide guztien parte hartze aktiboa bultzatu eta talde lana zein erabakiak hartzeko prozesu partekatuak sustatzeko.

Sei lan eremu definitu dira, horietako bakoitza ikasgelako 6-7 profesionalak osatua, horien barne direla bai irakasleak eta baita hezitzaileak ere.



Baliabide digitalak

Komunikazioa eta hizkuntza

Berrikuntza pedagogikoa, hezkuntza-
metodologiak

Gaitasunen programa

Inklusioa eta aniztasuna

Materialak eta baliabide didaktikoak

Koordinazioa geleskin

Geletako profesionalen taldearekin estuki lanean jarraitzen dugu, ikastetxeetan aurrez aurre edo telematikoki egiten diren bileren bitartez. Gure ikasleen ingurunea eta eguneroko errutina zuzenki ezagutzeko aukera ematen digu horrek.

Halaber, koordinazio hori ezinbestekoa da Jokabide Laguntza Positiboaren programa behar bezala kudeatzeko. Hain zuzen ere, horri esker, portaera horien arrazoiak identifikatu daitezke eta ondorioz estrategia eraginkorrak ezarri.



GIZARTEAN
Gizarte Trebetasunen tailerrak

12 urtetik beherako gazteei zuzendutako GIZARTEAN programarekin aurrera jarraitu dugu, trebetasun sozialak entrenatzeko helburuarekin. Programa horrek Gautenaren eta familien finantzaketa jasotzen du, baina izan duen harrera ona ikusita, ekimena finkatu eta zerbitzu estruktural bihurtzeko lanean dihardugu.

62 parte hartzaile izan ditu, probintziako zenbait udalerritan garatu diren lantegietan: Eibar, Arrasate, Zumarraga, Zarautz, Irun, Errenteria eta Donostia.



Aisialdiko ekintza zaldiekin udalekuetan.

Ikasturte amaierako asteburuko txangoa errepikatu dugu, eta baita uztaileko astebeteko udalekua ere.




HELDUAROARI ESKAINITAKO ARLOA



Eguneko arreta

Urtero gertatzen den bezala, 2024an, zentro eta unitate guztietan gora egin zuen eguneko arreta zerbitzuan laguntzen ditugun pertsonen kopruak: 147 ziren lehen, eta 151 dira orain.

Hala ere, hazkunde horrek ez du ekarri zentro eta unitateen kopurua handitzea, eta 2023ko kopuru bera dago: 6, guztira.



- *2024an, eguneko arreta zerbitzuak pertsona gehiago lagundu zituen, baina zentroen eta unitateen kopurua aurreko urteko bera izan zen.*

Profesionalen taldea

2024. urtean, 36 profesionalek osatu dute eguneko arreta zerbitzuko lantaldea. Haien konpromisoa, ardura eta lan ona dela medio, gure zerbitzuaosatzen duen kide bakoitzaren beharrei erantzun ahal izan diegu. Haien lanari esker, arrakastaz heldu ahal izan diegu urtean zehar agertu zaizkigun erronka eta egoerei.

Haien lanari esker, arrakastaz heldu ahal izan diegu urtean zehar agertu zaizkigun erronka eta egoerei.

- Profesionalak prestakuntza-zentroetan

Azkenik, laguntzen ditugun pertsonen errealitatea ikasle talde batzuei hurbiltzeko, eta batzuetan teoriaren eta praktikaren artean dagoen aldea gainditu nahian, trebatzaile gisa aritu dira zuzeneko arretako zenbait profesional eta beren bizipenen eta jakintzen berri eman dute hainbat prestakuntza-zentrotan.

Jarduerak

Urtean zehar, hainbat jarduera egin dira inguruneak partaidetza-testuinguru esanguratsu bihurtzeko.



Donostiako Itzuliaren hasiera. Nabigazio-jarduera.

Eraldaketa hori entitate eta gizarte-eragile askoren lankidetzari esker lortu da: kiroltako udal-patronatua, GUREAK, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Aranzadi zientzia-elkartea,



Gautenako profesionalak Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolan.

Goyeneche fundazioa, Kukai, Dbus eta beste hainbat eragile sozial eta partikular.

Aurreko urteetan bezala, eta unibertsitateekiko eta lanbide-heziketako zentroekiko lankidetzari indartzeko asmoz, haien instalazioetan egindako jarduera batzuetan parte hartu dute laguntzen ditugun pertsonak.



Sukaldeko jarduera Easo Institutu Politeknikoko ikasleekin.



HELDUAROARI ESKAINITAKO ARLOA



Eguneko arreta

Praktikaldiko ikasleak

Gure elkarteak, etorkizuneko profesionalen prestakuntzarekin duen konpromiso irmoari jarraiki, urtean zehar berrogeita zortzi pertsona hartu ditu eguneko arretako zentroetan eta unitateetan. Prestakuntza oso heterogeneo eta zabaleko ikasleak hartu baititugu zerbitzuan.

Praktikaldiko ikasleen titulazioak



Jokabide Laguntza Positiboa (ACP)

Erregulazio emozionala eta jokabidearen kudeaketa dira, oraindik ere, gure esku hartzea gidatzen duten oinarrizko elementuak, bai eguneko zerbitzuan, bai etxebizitza zerbitzuan eta baita hezkuntza zerbitzuan ere. Jokabide-laguntza positiboko taldeak, zuzeneko arretako talde profesionalekin koordinazio estuan, ezinbestekoak dira jokabide-abiarazleak identifikatu eta jarduteko estrategiak diseinatzeko.

Taldeak arlo horretan trebatzen jarraitzen du urtetik urtera erakundeak. Oraingoan, erreakzio-estrategien kudeaketa zuzena landu da hiru zerbitzuetako zuzeneko laguntzako

talde guztiekin. Kasuen kudeaketan laguntzen duten aplikazio informatikoak ere sendotu dira, informazioaren erregistro eta ustiaketa egokiari esker.

Era berean, ezagutza sortzea lehentasunezko beste helburu bat da, eta 2024an jokabide-laguntza positiboko planen ebaluazioari buruzko azterlan baten bidez heldu zaio helburu horri. Hain zuzen ere, ikerketa hori 2025ean, Salamancako Unibertsitateko Komunitatean Integratzeko Unibertsitate Institutuak (INICO) antolatutako XII. Ikerketa Jardunaldi Zientifikoetan aurkeztuko da.



Azpeitiko baliabidea

Zerbitzua finkatzea eta haztea

2021eko ekainean Azpeitiko zerbitzua zabaldu zen, 14 plaza etxebizitzan eta 14 plaza eguneko arreta zentroan eskainiz. Hasieratik, zerbitzuak etengabeko bilakaera izan du, etengabeko hobekuntzarekiko eta AENa duten pertsonen eta haien familien beharretara egokitzeko konpromisoak bultzatua.

2024an etxebizitzako 14 plazak mantendu dira. Eguneko arreta zentroan, berriz, plaza kopurua handitu egin da, guztira 21 plazara iritsiz.

Hazkunde horren ondorioz, zazpi plaza gehiago daude ireki zenetik, zerbitzua egonkortzeaz gain, hedatzen ari den baliabide gisa finkatu da. Hazkuntza horretan, indartu egin da profesionalen plantilla, bai kopuruari dagokionez, bai antolaketa-egiturari dagokionez. Halaber, bi profesional koordinatzaile gisa izendatu dira.



Koordinatzailearen figura horrek eguneroko kudeaketa hobetzeko eta pertsonen eta haien familiei laguntza hurbilagoa, pertsonalizatuagoa eta eraginkorragoa eskaintzea ahalbidetuz.

Zerbitzuan egindako lana lantalde klinikoarekin – Jokabide Laguntza Positiboko eta Psikiatriako profesionalak barne – eta bulegoetako langileekin lankidetzan estuan egiten da. Izan ere, guztien lana ezinbestekoa baita zerbitzuaren funtzionamendua egokia izateko zein ematen den laguntzaren kalitatea bermatzeko. Horrek, aitzitik, kalitatezko zerbitzua mantentzeaz gain, zerbitzua pertsona bakoitzaren beharretara egokitzeko ahalmena ematen digu.



HELDUAROARI ESKAINITAKO ARLOA



Azpeitiko baliabidea

Jarduerak eta parte-hartze komunitarioa

2024an, pertsonen ongizate integralera bideratutako aisialdiko eta kiroleko hainbat jarduera egin dira. Eguneko zentroan egiten diren dantza eta yoga jarduerak, besteak beste. Gautenakoak ez diren herriko sei pertsonak ere parte hartzen dute horietan. Ekimenaren

helburua alderantzizko integra-zioa sustatzea da, AENa duten pertsonen eta tokiko komunitatearen arteko harremanak sustatuz. Ildo beretik, Azpeitiko Musika Eskolan musika jarduerarekin jarraitu da, eta, horrela, inguruko kultur baliabideekiko lotura indartu.

- *Pertsonen adierazitako interesa*
- *kontuan hartuta, aurreko animaliekin*
- *elkarrekintzan aritzeko jarduerak berriak*
- *antolatuta dira.*



Zaldiekin jarduera.



Txakurrekin esperientzia

Jarduera horiek guztiak aisialdirako eta kirol erregularrerako eskubidearen ikuspegitik garatzen dira, komunitatean aktiboki parte hartzea eta kalitatezko denboraz gozatzea pertsonen ongizaterako funtsezkoak baitira. Ildo horretan, aurreko asko baloratua izan den esperientzia bat SendaVivara asteburuan egindako irteera bat izan da. Etxebizitzan bizi diren pertsonen oporraldi txiki batzuk hartu ahal izan dituzte beste ingurune batean, bizikidetza eta gozamen pertsonala indartuz.



Azpeitiko zentroko helduak SendaVivara egindako irteeran.

Boronda-TEA: erabateko inklusiorako beste urrats bat

Boronda-TEA ikuspegi eraldatzaile batekin sortu da: kontua ez da soilik AENa duten pertsonak gizartean egotea erraztea, baizik eta beren gaitasunengatik baloratuta, errespetatuta eta aitortua izatea baizik. Pertsona guztiek ekarpenak egin ditzaketela defendatzen du programa honek. Gaitasun horiek ikusaraztea eta horiek adieraz ditzaketen testuinguruak sortzea funtsezkoa da benetan inklusiboa den gizarte bat garatzeko.

Ekimen horren bidez, zerbitzuaren erabiltzaileek, ingurune eta harreman berriekin harremanetan egoteaz gain, eragile aktibo ere bihurtzen dira beren komunitatean. Horrela, elkarrekiko onura sortzen da: AENa duten pertsonak irabazi egiten dute autonomia, autoestimuan eta harreman sozialetan, eta ingurunea aberastu egiten da aniztasuna ezagutzean eta baloratzean.

2024ko ekintza garrantzitsuenetako bat Boronda-TEA programa abian jartzea izan da, Iraurgi Ikastetxearekin lankidetzan garatu dena.



Boronda-TEA proiektuaren aurkezpena Azpeitian Iraurgi Ikastetxearekin batera.

Erabateko inklusioa posible dela sinetsita begiratzen diogu etorkizunari, eta lanean jarraituko dugu pertsona bakoitza baldintza berdinetan garatu, parte hartu eta baloratu ahal izango den inguruneak eraikitzeko.



HELDUAROARI ESKAINITAKO ARLOA



Etxebizitza

Etxebizitza zerbitzuan, laguntza intentsiboa eskaintzen diegu autismoaren espektroko nahasmenduren bat duten eta laguntza premia handiak dituzten pertsoneri. Horretarako, pertsonarengan eta komunitatean jartzen dugu arreta batez ere, etxebizitzak osatzen dituzten bizikidetza-unitate txikiak antolatuz, betiere pertsona guztientzat erosoak, seguruak eta lagungarriak diren inguruneak sustatuz.

Administrazioarekiko harremanaren aldetik, bi hobekuntza ildotan lanean jarraitzen dugu, identifikatzen ditugun beharretara gero eta hobeki egokitzen diren erantzunak eskaintzeko xedearekin.

- **ETXEBIZITZA SAREA ZABALTZEA**

Gaur egun, gure etxebizitza sareak plaza kopuru berarekin jarraitzen du, uneko zazpi kokalekuetan.

2021ean egindako azken handiagotzetik, plazen eskaria modu iraunkorrean hazi da. Horrek sarea zabaltzeko beharra indartzen du, artatzen ditugun pertsoneri arreta egokia emango zaiela bermatzeko.

92 artatutako pertsona




- **ETXEBIZITZAK ZABALIK DAUDEN EGUN-KOPURUA**

Hobetu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat etxebizitza bakoitza urtean zehar zenbat egunez dagoen zerbitzuan da. Opor garaietan, batez ere udan, itxita egoten direnean, kudeaketa zailtasunak izaten dituzte familiek. Aldi horietan egiten den plazen erabilera moldatzen jarraitzen dugu, alde batetik, premiak lehenetsiz, eta, bestetik, Familiei Laguntzeko Zerbitzuak antolatzen dituen jardueretan parte hartuz.

Laguntza premia berriak

Gure etxebizitzetan bizi diren pertsonen zahartzea agerikoa da. Hurrengo grafikoak zerbitzu honetan artatutako pertsonen adinaren arabeko banaketa erakusten du. Nabarmenezkoa da horien guztien %26ak 50 urte baino gehiago dituela, eta %34, berriz, adin horretatik gertu dagoela.



Errealitate berri horren aurrean, Gautenan landa-azterketa bat egiten ari gara, barneko lantalde batekin, erantzun beharko ditugun berariazko premiak ezagutzeko. Beren esperientzia eta ezagutza ekarriko diguten kolektibo

espezializatuekin aliantzak ezarri ditugu ere, bizitzako ziklo horretako beharrak sakonago ezagutzeko.

Errealitate berri honek esku-hartze eredu espezifiko bat definitzera garamatza.

Helduen eredu berria Azpeitian modu positiboan ezarri ondoren, beharren ebaluazio honek kudeaketa eta esku-hartze eredu horretan oinarritutako laguntza beharko duten pertsonak identifikatzeko aukera emango digu.

Osasuna zaintzea sustatzen jarraitzen dugu, bi funtsezko eremutan:

- **Prebentzio protokoloak jarraitzea** (analisiak, odontologia, podologia eta familiako medikuntza).
- **Gaixotasun kronikoen eta osasun menta-laren arreta** gure talde klinikoaren eskutik.



HELDUAROARI ESKAINITAKO ARLOA



Etxebizitza

Jarduerak

Jarduera programak garrantzi handia dauka pertsonen egutegian. Askotariko jarduerak bilatzen ditugu, pertsona guztien interesak kontuan hartuta eta jarduera bakoitzak eskatzen dituen profiletara egokituta. Horretarako, beren programetarako sarbidea ematen diguten erakundeekin lankidetzan jarraitzen dugu.



Mantentze lanak

Etxebizitzen ezaugarri eta erabilera tarteko, etengabe esku hartu behar izaten dugu, ahalik eta egoera hoberenean egon daitezen, bizi kalitaterako garrantzitsua baita.

Egindako ekintzen zati bat ONCE Fundazioak finantzatu du, desgaitasuna duten pertsonei zuzendutako proiektuetarako laguntzen deialdi orokorraren esparruan.

Etxebizitza	Egindako lanak
Oriamendi	Gelak eta espazio komunak berritzea eta pintatzea Ibilgailuak sartzeko ate berria jartzea
Urnieta	Etxebizitzetako baten galdara berritzea
Zarategi	Bi solairuetako instalazio guztiak pintatzea
Goizalde	Instalazioak pintatzea eta egongela eta sukaldeko altzariak berritzea
Berio	Instalazioak pintatzea eta sofa eta aulkien ekipamendua berritzea




Diagnostikoa eta esku-hartzea

Erakundera ebaluazio diagnostiko baten bila datozen helduen kopuruak goraka jarraitzen du. Gehienentzat oso lagungarria izan da autismoaren espektroko nahasmenduaren diagnostiko bat edukitzea galdera askoren erantzunak aurkitzeko.

Aurten, 2024an, 63 heldu berri jarri dira harremanetan Gautenarekin, eta horietatik 34, erdia baino pixka bat gehiago, emakumeak izan dira.

151 artatutako pertsona



- *Gautenara ebaluazio diagnostiko baten bila datozen helduen kopuruak goraka jarraitzen du. 2024an 63 heldu berri jarri dira harremanetan*
- *Gautenarekin, eta horietatik 34, erdia baino pixka bat gehiago,*
- *emakumeak izan dira.*

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari aldarrikapena

Osasun Sailean 18 urtetik gorako pertsonen diagnostiko eta esku-hartze klinikoko beharrei modu estrukturalean eta finantzaketa publikoarekin erantzun ahal izateko aldarrikapena egiten jarraitzen dugu.



Furgoneta berri bat erosi dugu, Kutxa fundazioak partzialki finantzatua

Egokitutako ibilgailu berria Txarako etxebizitzara bideratu da; han, zahartze-prozesuan dauden 12 pertsonari ematen die zerbitzua.

Furgonetaren kostu osoaren zati handi bat Kutxa fundazioak finantzatu du, gizarte- eta/edo kultura-ekimenetarako laguntzen deialdiaren bidez.



FAMILIEN ETA KOMUNITATEAREN ARLOA



Familiantzako Laguntza eta Elkarte Ekintzak

URDINDUZ, bidea eginez

Beste behin ere, Familiei Laguntzeko Zerbitzuaren barruan oihartzun handiena izan duen jarduera autismoaren aldeko martxa solidarioa izan da: URDINDUZ. Haren arrakastak argi erakusten ditu familien indarra eta konpromisoa: pilaka agertu ziren eta, horrez gain, modu aktiboan parte hartu zuten aurten Donostian egin den ekitaldia antolatzen.



Aisialdia eta Denbora Librea

Eskolaz kanpoko programak igerilekuko jarduerekin (astegunetan) eta aisia-taldeekin (larunbat eta igandeetan) osatzen dira. Bestalde, udako programen barruan daude uztailera udaleku irekiak eta abuztuko kanpamentuak. Azkenik, «Atsedeen» programak asteburuko hogeita hamar egonaldi ditu ikasturtean zehar.



Eskolaz kanpoko
jarduerak

115
Partaide

39
Profesional

Udarako
programak

149
Partaide

80
Profesional

Atsedeen
programa

59
Partaide

9
Profesional

FAMILIAK

Eibarko Coliseo antzokia beteta, familien errealitatea ezagutzeko



Eibarko Coliseo antzokia jendez gainezka familiak antolatutako solasaldi batean.

Zazpi familiak beren errealitatearen berri eman zuten jendez gainezka zegoen Coliseo baten aurrean, saio hunkigarri eta aberasgarri batean. Solasaldia, familien beren ekimen bat, Jara Larreategi Eibarko ordezkariak psikologoak dinamizatu zuen.

Autismoa ikusarazteko jaieguna Arrasaten

Autismoaren espektroko nahasmendua (AEN) duten pertsonen senitartekoen talde batek ("MondraTEA") jaieguna bat antolatu zuen Arrasaten. Hainbat tailer eta jolas-jarduera egon ziren, informazio-mahai bat eta baita puzgarriak ere.

Urola Garaiko eta Goierriko familien topaketa

Ekainean topaketa bat egin genuen Zumarragan Urola Garaiko eta Goierriko familiekin.

Topaketa horretan erakundeko profesionalak ere izan ziren, eta inguru horretako familien ekintza dinamizatzeko moduari buruz hitz egin genuen.



FAMILIEN TXOKOA

«Familien Txokoa» jaio da, esperientziak lehen pertsonan partekatzeko atal berria

Autismoa ikusarazteko, ba al da autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonak eta haien familiak baino hoberik?

Familien ekimenez, aldiakariaren atal berri hau sortu da, GAUTENAKIDE. Helburua da esperientziak, ikaskuntzak, gaitortutako erronkak eta hausnarketak partekatzea, beste batzuentzat inspirazio eta pizgarri izan balitezke ere.



FAMILIEN ETA KOMUNITATEAREN ARLOA



Familiენტzako Laguntza eta Elkarte Ekintzak

Familien Jaia ospatzen

Eguraldi txarragatik uda-jaia bertan behera utzi behar izan ondoren, irailean familien topaketa ludiko bat egin genuen Jesuitinas ikastetxean. Puzgarriak, janaria, edaria eta, batez ere, oso giro ona izan genituen.



Ume bat Gautena hitza margotzen Familien Jaian.

Gabonetako kanpaina: 'Unibertso anitza'

"Unibertso anitza" da urte amaierako kanpainaren leloa, eta galtzerdi batzuk dira haren sinboloa, autismoaren espektro barruan dagoen aniztasunaren adierazgarri. Galtzerdietan irudikatutako infinituaren sinboloaren bidez, autismoaren espektroko nahasmendua duten bi pertsona berdín ez daudela nabarmentzen da.



Kanpainak arrakasta handia izan zuen familien artean, eta autismoa duen pertsona bakoitzaren berezitasuna azpimarratzen duen "Urdin bat, urdin anitz" mezua indartzen du.

Laguntza-programak garatzeko finantzaketa

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentua da Familiენტzako Laguntza Zerbitzuaren finantzatzaile nagusia. Bestalde, 2024an, zerbitzuak finantzaketa nabarmena jaso du Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eskutik, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzen deialdiaren bidez.

Bigarrennez, Danobatgroup talde industrialak laguntza eskuzabala eman dio Gautenari, «Elkarrekin Eragin» ekimenaren esparruan. Ekimen horretan, taldeko profesionalek aukeratzen dute zer hautagaitza babestu nahi duten, beren botoen bitartez. Laguntza hori Elgoibarko udalak lagatako Santa Klara komentua egokitzeko eta bertan egiten diren programak aurrera eraman ahal izateko erabiliko dugu.

GAUTENA BERDINTASUNAREKIN

2024 trantsizio-urtea izan da Gautenan berdintasunaren arloan; izan ere, amaitutzat eman dugu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana, eta aurrera egin dugu II. Plana (2025-2028) egiten.

Esku-hartze eremuetan (laneko osasuna, kontziliazio erantzukidea, prestakuntza eta komunikazio inklusiboa) ezarritako ekintzak zehatz-mehatz aztertu ondoren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren ezarpen-maila handia izan dela ondorioztatu du Berdintasun Batzordeak

Oinarri sendo horren gainean, Berdintasunerako II. Planak lan-ildo berari jarraitzen dio. Egindako ekintzen artean, aipatzekoak dira kanpaina berri bat antolatzea, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna dela eta, eta langile guztiei komunikazio inklusiboa emateari buruzko prestakuntza.



Gautenako eguneko zentroetako helduekin antolatutako sensibilizazio ekimena Emakumearen Nazioarteko Egunean.

Erakunde kolaboratzailea



Emakundek emakumeen eta gizonen berdintasunerako 20 erakunde kolaboratzaile berri aintzat hartzeko ekitaldia.

Gautenak Erakunde Kolaboratzaile zigilua jaso du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eskutik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin dugun konpromisoaren aitorpen gisa.



2024KO JARDUERAK

Autismoari buruzko Hitzaldi-Zikloa

Aurten ere, Kursaaen egingo da autismoari buruzko hitzaldi-zikloaren edizio berria; autismoaren espektroko nahasmenduaren inguruan elkartu, ikasi eta hausnartzeko gune bat da. Gure agendan dagoeneko finkatuta dagoen ekitaldi horrek autismoaren arloko profesionalak, familiak eta pertsonak biltzen ditu, ezagutzak, esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzeko.

Gainera, ONCE Fundazioaren laguntza dugu, partzialki finantzatzen baitu ekimen hori, desgaitasuna duten pertsonentzako proiektuetarako laguntzen deialdi orokorraren esparruan.



Irene López AEN duten pertsonentzako osasun-arretari buruzko hitzaldian.

1.HITZALDIA

Irene López

Autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonentzako osasun-arreta.

Rafael Armesto

Guraso-ahalaren eta tutoretzaren erreforma.

2.HITZALDIA

3.HITZALDIA

Lupe Montero

Arrisku teknologikoei aurre egitea, etxean teknologia arduraz erabiliz.

Kanarietako San Juan de Dios zentroetako ordezkarien bisita jaso dugu

Kanarietako San Juan de Dios zentroetako ordezkari batzuek Gautenako zerbitzuak bisitatu zituzten duela gutxi.

Zentro horiei desinstituzionalizazio-prozesuan eskaintzen diegun laguntzaren barruan sartzen da bisita hori. Helburua da bestelako laguntza-eredu baterantz egitea aurrera:



San Juan de Dios zentroetako ordezkariak Benta Berri eguneko zentroan.

komunitarioagoa, pertsonan zentratua, eta hura ingurunean sartzeari begira.

Simon Ezquiagak, Gautenako kideak, Plena Inclusión erakundearen 60. urteurreneko kontzertuan parte hartu du



Simón Ezquiaga kontzertuan.

Simon Ezquiagak, Gautenako kideak, Plena Inclusión erakundearen 60. urteurreneko kontzertuan parte hartu zuen

Madrilgo Musika Auditorium Nacionalean. «Ezinezkoa egingo da» lelopean, ekitaldiak diskriminazioaren aurkako borroka eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideen aldarrikapena nabarmendu zituen. Simonek bere *Mala racha* abestia interpretatu zuen. Haren hitzetan, «abesti amorratu» bat da, bazterkeriak sortutako mina

eta frustrazioa islatzen dituen. Haren emanaldia indar- eta itxaropen-mezu bortitza izan zen.

Plena Inclusión

Plena Inclusión elkarteak 950 elkarte ordezkatzeko ditu, eta adimen- eta garapen-degaitasuna duten 150.000 pertsona baino gehiagoren eta haien familien eskubideak defendatzeko ditu.

Donostiako Enpresen Lasterketan parte hartzen dugu

Gautenako hezkuntza-zerbitzuko lau langilek Donostiako Enpresen Lasterketan (8,5 km) parte hartu zuten. *El Diario Vasco*k, Donosti Eventosek eta Adegik antolatzen dute

ekimen hori, eta enpresa edo erakunde bereko kideen artean adiskidetasuna sustatzea eta lotura afektiboak sortzea du helburu. Aukera paregabea da elkarrekin kirola egiteko.



Bazkideen Batzar Orokorra



2024ko Batzar Orokorra.

Elkartearen Kudeaketa Plana eta 2022ko finantza-egoera betetzea onartu zen, 2024ko eduki nagusiak azaldu ziren, hurrengo urterako aurrekontuak aurkeztu ziren eta Zuzendaritza Batzardea berretsi zen.



2024KO JARDUERAK

EHUko Uda Ikastaroa egin dugu Euskadiko Autismo Plana garatzeko premian sakontzeko



Gautenak antolatutako UPV/EHUko Udako Ikastaroko hizlariak Maite Peñarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketetako eta Gizarte Politiketako Diputatuak.

Gautenak, APNABI Autismo Bizkaiaren laguntzarekin, jardunaldi bat antolatu zuen Donostian, EHUren Uda Ikastaroen barruan. Helburua Euskadiko Autismo Plan baten beharrari buruz hausnartzea zen. Ekitaldian nabarmendu

zen zein garrantzitsua den politika integral bat diseinatzea, autismoa duten pertsonen eta haien familiek arlo guztietako sistema publikoak (hezkuntza, gizartea, osasuna, lana eta legea) eskuratu ditzaketela bermatuko duena.

Nerea Melgosa sailburuak Euskadiko Autismo Plan baten proposamena babestu du



Topaketa Nerea Melgosa Vegak itxi zuen, Eusko Jaurlaritzako Ongizateko sailburuak. Hark berariaz babestu zuen Euskadiko Autismo Planaren garapena; hala, Euskadin arreta koordinatua, espezializatua eta inklusiboa emateko ibilbide-orria bultzatu zuen.

Hitzaldi nabarmenak:

- Joaquín Fuentes eta Amaia Lopetegui: autismoaren laguntza-ibilbidea estatuan eta nazioartean.
- Wendy Thomas eta Donna Sharland: autismoa artatzeko Galesko eredua.
- Sara Codina, AEN duen emakumea eta dibulgatzailea: esperientzia pertsonala.

Hainbat ikuspegitatik jorratu ziren zerbitzu publikoak eskuratzeko oztopoak:

- Legea: Iñaki Subijana (EAEJANko presidentea)
- Osasuna: Irma Isasa doktorea (Gautena)
- Lana: Iban Huarte (APNABI)
- Hezkuntza: Teresa González de Rivera (UAM)

Donostiako hipodromoko lasterketa bat babestu dugu aurten ere



Blanca Aranguren, Gautenako presidente ordeak, merezitako saria ematen dio irabazleari.

Gautenak, aurten ere, zaldi-lasterketa bat babestuko du Donostiako Hipodromoan. Beste ekitaldi bat da gure elkarlanean, eta, hari esker, udadenboraldian lasterketetara joateko gonbidapenak jasotzen ditugu.

Interreg POCTEFA TEA mugaz gaindiko proiektuaren bisita



Interreg POCTEFA TEA Pir proiektuko ordezkariak Maite Peña eta Gautenako profesionalarekin batera.

Interreg POCTEFA TEA Pir mugaz gaindiko proiektuaren ordezkarien bisita jaso genuen. ATADESburuan duen programa hori Espainiako, Frantziako eta Andorrako muga-lurraldearen garapen jasagarria sustatzeko sortu zen, autismoa duten

pertsonen inklusioaren arloan. Maite Peñak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuak, harrera egin zion lantaldeari, eta hurrengo egunean gure etxebizitzetako batean izan ziren, gure kudeaketa-eredua gertutik ezagutzeko.

Autismo Europaren Batzar Orokorra



Autismo Europaren Batzar Orokorra bertaratu ziren pertsonak.

Gautenako ordezkariak Dublinen izan ziren, 2024an egindako Europako Autismoaren Urteko Batzar Nagusian. 2025eko irailean, hiri berera itzuliko gara, Europako Autismoaren Nazioarteko Kongresua dela bide.

Autismoari buruzko Kongresua Mexikon

Felix Arregi etxebizitza zerbitzuko arduradunak gure etxebizitza eredua aurkeztu zuen COTIik Monterreyn (Mexiko) antolatutako 13. Nazioarteko Autismo Kongresuan.



2024KO JARDUERAK

Eusko Legebiltzarrak aho batez onartu zuen lehentasunezko osasun txartela

Osakidetzak lehentasunezko osasun-txartel bat bultzatuko du adimen-desgaitasunaduten pertsonentzat. Aurretik, Patxi Agirre eta Amaia Lopetegui, Gautenako presidentea eta zuzendaria hurrenez hurren, Josean Idoetarekin batera, Eusko Jaurlaritzako Osasun Batzordean izan ziren FEVAS-Plena Inclusión Euskadi erakundearen izenean osasun-txartel honen garrantzia defendatzeko, eta horren ondorio da ekimen hau.

Neurri horrek aurrerapausoak ematen ditu adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen osasunera sarbidea izan dezaten; izan ere, osasun-arreta irisgarriagoa eta egokituagoa izatea ahalbidetuko du, eta laguntza erraztu, itxaronaldiak murriztu eta komunikazioa hobetuko ditu.

Xehetasunak zehazteke daude oraindik, baina FEVASen hitzetan: «Urrats honekin,



Amaia Lopetegui eta Patxi Agirre, Gautenako presidentea eta zuzendaria, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailean.

osasun-sistemak aintzat hartzen du zein garrantzitsua den bere zerbitzuak pertsona horien behar espezifikoetara egokitzea, osasun-arreta esku-ratzeko aukera ekitatiboagoa ziurtatzeko».

AETAPIren XXI. kongresura joan ginen, Cadizen



Gautenako profesionalak AETAPIren kongresuan.

Gautenako profesional talde bat Autismoaren Profesionalen Espainiako Elkartearen (AETAPI) XXI. kongresuan izan da, Cadizen. «Eskubideak, gure konpromisoa» izenburupean, kongresuak azpimarratu du garrantzitsua dela autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonen eta haien

familien eskubideen defentsa izan dadila gure lanaren oinarria.

Egitarau zabala eta hizlari nabarmenak ditueneguz, hitzordu hori ezinbesteko ekitaldia bihurtu da loturak sendotzeko eta sareko lana sustatzeko.

Txistorra saltzeko postua izan genuen Donostiako Santo Tomaseko ferian




Profesional eta familia boluntarioen talde bat txistorra saltzeko postuan.

Gautenak, hirugarrenez, bidez. Pintxo, ogitarteko eta txistorra saltzeko postua edarien salmentak arrakasta jarri zuen Donostiako Santo handia izan zuen, eta familia Tomaseko ferian. Ekitaldia baino eta profesional boluntarioen aste batzuk lehenago esleitu konpromisoari eta lankidetzari zitzaigun postua, zozketa zor diogu hori guztia.

"Unibertso Anitza" egutegia

Salesianos Urnieta ikastetxeko ikasle talde batek 2025erako egutegi bat sortu zuen Gaute-narentzat. Horretarako, gure "Unibertso Anitza" kanpainan oinarritutako ilustrazioak sortu zituzten, autismoaren espektroaren barruan dagoen aberastasuna eta aniztasuna islatzen dituztenak.



"Unibertso Anitza" egutegiaren azala.

EUSKARA Gautenan

Webgunea bi hizkuntzatan ☒

☒ Euskarazko bertsioa lehenengoz informazio-buletinetan

☒ Arreta zerbitzua euskaraz

☒ Harreman instituzionalak

Sare sozialetan publikazioak ☒

Euskarazko hedabideetan presentzia ☒



2024KO JARDUERAK



Ekintza solidarioak



Boda solidarioa

Gautenako neska gazte baten lehengusina da Belen. Bere ezkontza zela eta, berak eta bere bikotekideak oso erabaki berezia hartu zuten: Gautenari gonbidatuentzako oparirako erabili ohi den dirua ematea. Keinu eskuzabal honen bitartez, elkartean egiten dugun lana eskertu eta ikusgai egin nahi izan zuten.

Gautenatik, bikoteari gure esker ona eta maitasuna adierazteko opari txiki bat prestatu genuen, gonbidatuei banatu zieten.

Mila esker
bihotzez

Erreginaren Kopa inklusibo eta solidarioa



Eskubaloiko Erreginaren Kopak Gautenarekiko konpromisoa erakutsi zuen ekintza solidario eta inklusibo baten bidez.

Saldutako abonu bakoitzeko euro bat bideratu zitzaion Gautenari, Eta ez hori bakarrik, aniztasun funtzionala duten pertsonen parte-hartzea ere sustatu zen, txirrindularitza egokitua, gurpil-aulkiko eskubaloia eta zirkuitu sentesoriala bezalako jarduerak inklusiboen bidez. Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioarekin lankidetzan egin zen hau.

Azkenik, antolakuntzak 4.238 euroko txkeka eman zion Gautenari, Super Amara Bera Berak bere zortzigarren Kopa lortu zuen finalera joan zirenen kopuruari dagokiona.



Futbol txapelketa solidarioa



Gautenak dohaintza eskuzabala jaso zuen Gabonetan Emakumezkoen Intxaurdi Kirol Elkarteak antolatutako IX. Txapelketa Solidarioaren ondorioz.

Sciencia Karmelo Ikastetxeko guraso elkartearen dohaintza

Ikastetxe horretan gela egonkor bat kudeatzen urte asko eman ondoren, eta ikastetxearen itxiera zela eta, bertako guraso elkarteak elkartasun keinu bat izan zuten gure erakundeari dohaintza eginez.



Real Sociedad Fundazioaren eguna



Gautena Reale Arena inguruan ospatutako Real Sociedad Fundazioaren egunean izan zen, Informazio mahai bat jarri genuen, non autismoari buruzko materiala eskaini zen eta merchandising produktuak saldu ziren.

Gainera, egun horretan bertan egin zen zozketarako boletoen salmentaren etekinak — guztira 635 boleto saldu ziren — gure elkartera bideratu ziren.

Eskerrak ematen dizkiegu, bereziki, jardunaldi hau aurrera eramán ahal izana ahalbidetu zuten boluntario guztiei.





URTEKO KONTUAK

Emaizten kontua

2024ko abenduaren 31n itxitako ekitaldia

	2024	2023
1. Berezko ihardueraren erakundearen sarrerak	15.580.501	13.902.984
2. Jardueraren bestelako sarrerak	6.959	2.206
3. Pertsonal-gastuak	-11.793.800	-10.864.948
4. Ustiapeneko bestelako gastuak	-3.748.872	-3.453.831
5. Ibilgetuaren amortizazioa	-444.014	-347.600
6. Ekitaldiko emaitzari egotzitako kapital diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	416.399	326.305
7. Bestelako emaitzak	102.196	78.990
A) USTIAPENEO SOBERAKINA	119.369	-355.894
8. Gastu finantzarioak	-13.797	-15.223
9. Balioaren narriadura, bajak, eta aktibo eta pasibo finantzarioak inorenganatzea		-5.090
B) ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA	-13.797	-20.313
C) ZERGA AURREKO SOBERAKINA	105.572	-376.207
EKITALDIKO SOBERAKINA	105.572	-376.207€

Egoeraren balantzea

AKTIBOA	2024	2023
A) AKTIBO EZ-KORRONTEA	5.068.571	5.430.120
I. Ibilgetu ukiezina	1.516.051	1.635.613
III. Ibilgetu materiala	3.435.673	3.685.689
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	116.847	108.818
B) AKTIBO KORRONTEA	2.092.879	1.804.852
III. Erabiltzaileak eta berezko iharduerako zordunak	105.032	140.142
IV. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	1.763.280	1.369.184
V. Epe laburreko finantza inbertsioak	0	29.495
VI. Epe laburreko periodifikatzeak	25.555	17.098
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	199.012	248.933
AKTIBOA GUZTIRA	7.161.450	7.234.972€

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2024	2023
A) ONDARE GARBIA	4.639.606	4.934.434
A-1) Fondo propioak	-190.547	-296.119
I. Sorrerako zuzkidura/Fondo sozial	278.967	278.967
III. Aurreoko Ekitaldiko soberakina	-575.086	-198.879
IV. Ekitaldiko soberakina	105.572	-376.207
A-3) Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	4.830.153	5.230.553
B) PASIBO EZ-KORRONTEA	134.475	147.655
I. Epe luzeko hornidurak	124.778	147.655
II. Epe luzeko zorrak	9.697	0
C) PASIBO KORRONTEA	2.387.369	2.152.883
II. Epe laburreko hornidurak	99.965	4.434
III. Epe laburreko zorrak	4.739	200.000
V. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	2.282.665	1.788.942
VI. Epe laburreko periodifikatzeak	0	159.507
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	7.161.450	7.234.972€



FINANTZATZAILEAK

Administrazioa



Udalak



ANDOAINO
UDALA



ARETXABALETAKO
UDALA



ASTIGARRAKO
UDALA



AZPEITIKO
UDALA



BERGARAKO
UDALA



EIBARKO
UDALA



ELGOIBARKO
UDALA



ERRETERIAKO
UDALA



ESKORIATZAKO
UDALA



HERNANIKO
UDALA



IBARRAKO
UDALA



IRUNGO
UDALA



LEZOKO
UDALA



ARRASATEKO
UDALA



OÑATIKO
UDALA



PASAIKO
UDALA



DONOSTIAKO
UDALA



TOLOSAKO
UDALA



URRETXUKO
UDALA



USURBILGO
UDALA



ZARAUZKO
UDALA



ZUMAIKO
UDALA



ZUMARRAGAKO
UDALA

Enpresen dohaintzak



Emaille partikularrak

Eskerrik beroenak urte honetan lagundu diguten emaille partikular guztiei. Beraien laguntzek gure jarduerari eusten lagun digu sentsibilizazio, familientzako laguntza zerbitzuko, prestakuntza eta ikerketa arloetan.

2024



GAUTENA AUKERAK SORTZEN

GAUTENA

Gipuzkoako Autismo
Elkartea

EGOITZA SOZIALA

Francisco López Alen, 4
20009 - Donostia-San Sebastián
Tel: 943 21 53 44 / 717 795 144

info@gautena.org
www.gautena.org

f Gautena

t @gautenagipuzkoa

@gautena